Perseoko kideok:

**Irailaren 17a** bertan da eta dena prest dugu munduko hiririk politenetako batean egun ederra igarotzeko.

1. Biltzeko lekua: gizarte-etxearen parean dagoen **lore-postua**, José Ramón Aketxe plazako sarreran, Kultur Leioa dagoen tokian.

2. Irteteko ordua **9:30etan** izango da. Mesedez, garaiz etorri, kontratatutako 2 autobusak berandu abiatu ez daitezen. Iristen zareten heinean, igo zaitezte autobusera, ez itxaron kalean; horrela, zerrenda irakurri ahalko dugu eta zuen bertaratzea lehenbailehen egiaztatu.

*** Behar den garaian ez daudenek bidaiari uko egiten diotela ulertuko dugu.**

Gure kalkuluen arabera, Donostiako Autobus geltokira goizeko 10:30ak aldera helduko gara eta orduan banatuko dizkizuegu sarrerak. Sarrerak zenbakituak dira.

Zinemaldiko antolatzaileek informazioa eman bezain laster jakinaraziko dizkizuegu ikusiko ditugun pelikulen izenburuak eta proiekzioen ordutegi eta zinema-aretoak.

Itzulera **22:30etan**** izango da, eta autobusak leku berean hartuko ditugu; hau da, Autobus Geltokia, Federico García Lorca Pasealekua, 1. Erreferentziatzat parean dagoen TABAKALERA eraikina har dezakezue, eta hurbil daude Maria Cristina Zubia eta Tren Geltokia ere. (Ikus erantsitako planoak, ibilbide eta iraupenekin)

**** Garrantzitsua da garaiz heltzea, autobusek denbora tasatua dutelako geltokian bidaiariak utzi eta jasotzeko**.

Zalantzaren bat izanez gero, badakizue e-mail bidez guregana jo dezakezuela: cineforumleioa@gmail.com.

Elkartea. **Garrantzitsua:** Gogoan izan derrigorrezkoa dela maskara erabiltzea. Autbusak desinfektatuta egongo dira eta gel hidroalkoholikoa izango dute.

Bertaratutakoek euren erantzukizunpean parte hartuko dute jardueran; izan ere, Perseo Zinema Elkartea/Asociación Cineforum Perseo-k eskuzabaltasunez kudeatu du eta ezin da inolako gorabehera, istripu, kalte edo programaren aldaketaren erantzule izan.

Norbaitek jarduera uztean ez zaio ordaindutakoa itzuliko.

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

**PLANOS DE REFERENCIA.**
**Leioa, Centro Cívico (Salida y llegada)**

**ERREFERENTZIA-PLANOAK.**
**Leioa, gizarte-etxea (irteera eta iritsiera)**






**Donostia-San Sebastián**




PERSEO ZINEMA ELKARTEA / ASOCIACIÓN CINEFORUM PERSEO
José Ramón Aketxe plaza, 11 – 48940 LEIOA – BIZKAIA
Web: cineforumperseo.com Tel: 615 783 395
e-mail: cineforumleioa@gmail.com
CIF G95688677

**Itinerario, distancia y tiempo a pie entre el VICTORIA EUGENIA y KURSAAL y la ESTACIÓN DE AUTOBUSES (A modo de referencia)**

**Ibilbidea, distantzia eta oinez behar den denbora VICTORIA EUGENIA eta KURSAAL eta AUTOBUS GELTOKIAren artean (erreferentzia gisa)**




